

# *Belea eta Azeria*

*Herri doinua*

*Hitzak: Zaldubi*

*Mold: Aitor Amezaga*




© 2009 by Aitor Amezaga




Belea haragiki
puska bat mokoan
Haren jateko zagon
haitz baten kaskoan.
Axeria ihizin
han gaindi baitzohan.
Usainka eta beha
trikatzen zaio han.

2."Egun on, Musde Bele;
zer jaun ederra zu!
zure luma dirdiraz
liluratzen nauzu.
Kantari eder baten
fama ere duzu
Nahi zintuzket entzun:
Othoi kanta zazu".

3.Belea lorietan
hasten da kantatzen,
Zehe bat duelarik
mokoa zabaltzen:
Bere zitzia zaio
lurrerat erortzen.
Axeria hain xuxen
altxatzeko han zen.

4.Axeriak: Milesker
dio beleari:
Ez gaitela, to, fida
lausenkariari,
Eta ez ere gure
eder usteari.
Jaki hau daiat hartzen
hitz on horren sari.